



Gaztelu, nabarmen, Lastur gainean.

Gaztelu

Lasturko zaindaria

Gaztelu: Lastur ibar ezkutuko behatokia

Erreferentziak

0 km	Lastur
1,8 km	Elorotsu
3 km	Erentza
4,5 km	Artajalegi
5,6 km	Gaztelu
11,2 km	Lastur

Nola iritsi



Izarraizko mendigunean kokaturik, Gazteluko tontorrak mendikate ezagun honen ikuspegi ezezaguna eskaintzen digu

Xabier Aranguren

Lasturko haran ezkutuan kokaturik, Gaztelu beti izan omen da erreferentzi puntua eguerdian Lasturko biztanleentzat, eguzkia juxtu momentu horretan baitago mendi horren gainean. Erlojuari begiratu beharrik ez zuten askotan zein ordu zen jakiteko.

Kondaira zaharrak dio jentilek harri erraldoiak botatzen zituztela Lasturko elizaren kontra. Gaur egun, berriz, beste jentil klase batzuek, Ugarte Berriko harrobiek, beste fronte bat zabaldu dute Urkulu mendiaren magalean. Bera da Gazteluko anaia zauritua.

Lastur. Herriko zezen plazatik ekingo diogu ibilbideari, Lastur errekararekin batera. Sasiolara doan errepidetik, Leizaola baserri edo Dorretxea pasatuko dugu. Laster, erreka desagertu egingo da zulo batean, eta Sasiolako zubi zaharreko ur zuloan aterako gara gero. Bihurgune baten ondoren, Abeletxe baserrira helduko gara. Abeletxe baserri horren parean, errepidea utziko dugu, eta ezkerretara

doan pista hartu, gorantz. Bidean, gasbi-dearen seinaleak aurkituko ditugu, eta errekararen arrastorik batere ez, ura lur azpian desagertzen baita.

Pare bat bihurgune pasatu ondoren, eskuinera doan pista hartuz gero, Elorotsu edo Elorditsu (bi izenez ezaguna) baserrira ailegatuko ginatke; hutsa dago baserria, baina tente dirau. Guk, hala ere, gure pistari segituko diogu, eta, hainbat bihurguneren ondoren, Irubixako lepora helduko gara, Leizeta eta Otarre mendien artean. Bertan, mugarri bat aurkituko dugu, Deba eta Mendaro mugatzen dituen. Lepoan bertan, halaber, karobi zahar bat ikus dezakegu, Euskal Herrian geratuko diren apurretakoa.

Irubizako lepota, pista nagusiari jarraituz gero, Erentza baserrira hurbil gaitzke, bost bat minutuz ibili eta gero. Baserri honek, harizpean, handi eta sendo dirau oraindik, nahiz eta hutsik egon. Gainera, Kilimon ibar aldera eskaintzen duen ikuspegi dotorea da oso, eta iturri eta aska eder bat ere aurkituko ditugu bertan.

Gazteluko tontorrera jarraitzeko, aldiz, ezkerrean doan pista hartu behar dugu, Otarre aldera doan pista. Pinudian eta maldan gora segituko dugu. Bihurgune bat pasatu eta laster, ezkerrean doan bidezidor batek iturri batera eramango gaitu. Berriro pistari, aurrera jarraituko dugu. Hurrengo bihurgunean, pista nagusia utzi, hesia pasatu, eta ezkerreko pista hartuko dugu. Pinudian barna segituko dugu, harik eta, bazter lokatu eta heze bat pasatu ondoren, Induiturriko zelai handira iritsi arte.

Induiturrin, zelai hegitik segitzen badugu, putzu eta hesi bat pasatu ondoren, Artajalegi baserriaren aurrak aurkituko ditugu. Hesitik 100 bat metrora daude. Berriro zelaian, hegitik beherantz jarraituko dugu, Induiturri baserrira. Hau bestea baino egoera hobean dago, eta oso leku berezian.

Aztera itzulita, Gaztelu mendiaren azken zati pikua ikusiko dugu. Azken izerdia. Gazteluren begiradapean, bere lepota bila abiatuko gara. Horretarako, sakonera jaitziko gara. Segidan, maldan gora, basotxo bat zeharkatuko dugu lepota heltzeko, elektrizitate tantai handi bat gidari dugula.

Lepotik gailurrera zatirik zailena gertatzen zaigu. Arreta handiz ibili behar dugu harri, ertz eta pitzadurekin gaina harra-patu arte. Gailurreko ikuspegiak Lasturko harana erakusten digu, Lastur Behetik Arbiskoa Goikoa baserriraino. Mendebaldean, Gaintxipixako tontor zorrotza; eta iparraldean, Lasturko harana babes-tuz, Lizarreta eta Andutz mendiak.

Gertu ikusten da Lastur, baina itzulera bide beretik egingo dugu, ezinaren hurrengo baita beste nonbaitetik jaitea.

Lepo horretatik, harriz betetako aldatik gora segituko dugu gaina lortu arte. Gailurrean, erdi ahaztuta, herdoildutako postontzi zahar bat aurkituko dugu. Lasturrerako itzulera bide berberetik egitea izango dugu samurrena.

Lastur, altxor bat mendi artean

Lastur Debako auzo da izatez, baina mendi artean galdutako herribildu honek nortasun oso berea du. Lasturko San Nikolas Tolentino eliza 1625erako aipatu zuen Lope de Isastik. Historian barna, Lastur eta Arbizoako baserrietako eliztarrak bildu izan dira bertan. Orain, irailean ospatzen dute Santuaren izeneko festa. Ermita aurrean dagoen plaza txikian, berriz, Europako behi-arraza autoktonorik zaharrenetakoak diren larre-behi eta betizuak ateratzen dituzte bertaraten direnentzat.

Lasturko eraikin interesgarrienak baseliza eta Leizaolako dorretxea dira, baina badira beste batzuk ere: Marixenea-ko eta Naparreneako etxeak, adibidez. Lastur Plazaolako errota ere benetako ondare-erlikia dira, errota bihurtu aurretik burdinola garrantzitsuak zirelako. Lastur ibarreko eta eskualdeko beste burdinolen eskaerari erantzunez, Alfonso XI erregeak, 1335ean zedula bat bidali zuela agertzen da; bertan, beste pribilegio batzuen artean, inguruko mendietan zuhaitzak botatzeko baimena eman zien. Errota hauek bisitatzeko moduan daude, oso ondo zainduta baitaude, eta oraindik ere badabilta.



Lastur, duela zenbait urteko argazkian.